

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4038

EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 2koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena. Honen bidez, Mendinet Landaren Garapenaren Aurrerabiderako Elkarteak hautatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Ekintza Talde, eta haren Landaren Garapen Parte-hartzailerako Estrategia onartzen da.

2023ko maiatzaren 22an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 95. zenbakian, Ekonomia-ren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 9ko Agindua onartu zen. Agindu horren bidez deialdi publikoa onartu zen, tokiko garapen parte-hartzailerako estrategiak onartzeko eta Landaren Garapenaren 2023-2027 Programaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzeko Tokiko Ekintza Talde arduradunak hautatzeko.

Eskaerak aurkezteko zabalduetako epeak amaituta, Zuzendaritza honetan eskaera bat sartu da deialdian parte hartzeko: Mendinet Landaren Garapenaren Aurrerabiderako Elkarteak aurkeztutakoa.

Kontuan hartu da aipatutako aginduaren zazpigarren ebazpen-zatian xedatutakoa, Tokiko Ekintza Taldeak eta horien estrategiak hautatzeko prozedura ezartzen baitu.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Mendinet Landaren Garapenaren Aurrerabiderako Elkarteak hautatzea onartzen da tokiko ekintza talde. Haren esku-hartze eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Landaren Garapeneko 2023-2027 Programan (Batzordearen 2022ko abuztuaren 31ko (2022) 6017 azken Erabakiaren bidez onartua) mugatutako Leader lurralde osoa izango da.

Bigarrena.– Mendinet Landaren Garapenaren Aurrerabiderako Elkarteak aurkeztutako Tokiko Garapen Parte-hartzailerako Estrategia onartzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 2a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.